

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2008ko urtarrilaren 25a / 234. zenbakia / 19. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** Obrak herrian 05
- **HIRITIA** Aiora Larrañaga 18
- **KIROLA OBB taldeko** Elena Etxeberria 09
- **OROIMENAREN KUTXA** Josepa Treku kantaria 24
- **AIAKO BERRI** Energia berriztagarria Pagoetan 11
- **HERRITARRA** Iñigo Perona 25



Milaka orri bizipenez
eta olerkiz **beteak**

Pako Arruabarrena 84 urteko oriotarra dugu. Urte horietatik 57 literaturari eskaini dizkio, isilpean. Berarekin izan gara.



HERRI KASTOLA

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38



A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

OBRA PROIEKTUA
ETXE BERTUAK ERAMITZEKO
ZAHARRENTZAKO KAMPOLIK
ETA BARRUTIK

URBANGAZIO PROIEKTUAK
OBRA ZUZERDARITZA
TRUSTENAK

IMANOL AGUIRRE MANTEROLA
ARKITEKTOA

MOBILA- 636-957 480
CALLEA EMERENTZEA 2-1

AUTOAK AUKERA ONEAN



AIA ORIO

Telefona: 943 13 04 38



Gure Txoko
Aripapen Kalea



AMILIBIA
eNTZielAK, S. L.

larri pertsonen proiektu
eta instalazioak

guz modako lekuetarako
arrazoi-ontzek

Obiskotagazua buzoa, 52
34 943 83 08 29
fasa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

uranga
autozorbizkua



Aliprox

Eusko Godari Kalea, 13-15
ORIO
943 83 38 75



ACTIVA



Akobe

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeslari Kalea, 1 - Telefon: 943 83 12 44
20809 ORIO



ARI DATZA modus

Eusko Godariak, 7 ☎ 943 83 10 88 ORIO



ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 1 | Tel: 943 83 16 57

Aita Lertundi 23

Baraka taberna

Gosariak, pintxoak,
kaxelitatek,
plater konbinatuak.

gaiterak...
musika eta kopaki



BEREZI
moda eta osagarriak

edozein tokian BEREZI sentitzeko arropa

Arrantza kalea, 3
Tel: 943 89 05 29

- Lois - Caroché - Guess? - Pepe Arellano - Jackpot - Diesel - Cotton Field -



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaletu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugkorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabbarri

Erredakzio burua

Patxi Uranga

Erredakzio taldeaLore Berasaluze, Pat Cowie,
Miren Etxebarria, Ana Iturain,
Eneritz Odriozola eta
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Patxi Uranga

Testuen zuzenketaMiren Etxebarria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Iñaki Iturain, Aiora Larrañaga,
Maidier Lasa eta Juan Rekarte**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakJosu Lizarralde eta
Itziar Aiestaran (Orio)
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Jartzazute kresta!

MIEL & OTXIN**1**


Otsaila hastearekin bada nahiko festa inauteriak datoz gaitezen ba presta betikoa egitea politena ezta lotsak etxen utzi ta jartzazute kresta.

2

Sagutxo edo pailazo moja ta apeza ondo aukeratzia hain zaigu nekeza zer egin ez dakinak ondo entzun beza trapu zarrak lotuz du mozorro erreza.

3

Orijinal ta guapo jarri behar det nik koadrilakok uzteko ahoa zabalik aurten ez da izango espabilaturik zein kristo ote naizen asmatuko dunik.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Aiako hustubideak

Santiotik Aiako errepidean hustubide handi batzuk daude, ur asko irensteko modukoak, baina batere babesik gabe daude kanpoko aldetik. Duela egun gutxi, adibidez, ume batzuk bere gurasoekin paseatzen zebiltzan Mañarin Zelai eta Andatza tartean. Hustubide paretik pasatzean, goitik behera joan zen haurretakobat. Eskerrak erreflexu onak zituen, besoak zabalduta, ahoko ertzari helduta geratu baitzen.

Hustubide handiak dira, umea erraz kabitzen da hor, eta auskalo non aterako litza-

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (Kultur Etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@topagunea.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin joango da; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

Gutunek, gehienez, 200 hitz izango dute. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

keen gero edo mina hartuta zer pasako litzaiokeen. Administrazioak zerbait egin behar luke, hor burdin sarearen bat

edo jarri, espaloiak egiten ez dituzten bitartean behintzat.

HERRITARRA

Angulentzat

Aristerrazun, lanean jardun dira errekan: urak bideratu egin dituzte eta toki zabala goa egingo zuten, noski. Kontua da, ur salto txiki batzuk jarri dituztela. Agian onak dira salto egiten duten arrainen-tzat: amuarrainak, izokinak... baina angulak ez dira hor goraino igotzen. Horren aldean salto handiko arranplandiak ikusiak ditut. Pareta eta bi izkinetan arranpla bezela. Nonbait aldapatxo horiek nahiko zurrumbilo sortzen dute angulak-eta gora igotzeko. Hori kontuan hartzeko.

HERRITARRA

TXISTUAK



Autoak zebra bidean

Ez da lehenengo aldia, horrelako kontuak lerrootara ekarriko dituguna.

Autoa gertu-gertu laga behar horrek makina bat enbarazu sortzen dizkio oinez doanari eta errepidera jaistea beste erremediorik ez zaio geratzen, autoak tokia hartu diolako.

Gaitzerdi, oraindik ez dela zoritxarreko istripurik gertatu, baina... noiz arte?

SAGARDOTEGIA
SATXOTA

BEREZITASUNAK
BAKILAO FRUITUA
TXULETAK
ANTXUMEA BURDUNTZIAN
BAKILAO TORTILLA

URTE OSOAN ZABALIK

Alako Santio auzoan Tel. 943 83 57 38

Sagardotegia
ANTILLA
jitelicea

Alako Santio auzoan Tel. 943 83 57 38

URDAIRA
Sagardotegia

18an zabaldu genuen
TXOTX denboraldia

Urdaira baserria
20170 Aginoga-Uxurbil
Tel. 943 372 691
Móvil: 630 777 346

ARISTERRAZU
jatebxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

ALTXERRI
Kana enberritua

Asteburuan, eguerdi eta gurutuan,
miru bereziak

943830762

ITURRIAGA JAUREGIKO LANAK LASTER JARRIKO DITU ABIAN FRYSSINET ENPRESAK

170 eskaera Mendibeltz azpiko garajeak erosteko

Futbol zelaiko lanak bukatuta, garajeak salgai jarri dira; baserrietako seinaleztapenak egokitzeko lanak, berriz, amaitu dira, igogailuko eta barrako obrak aurrera doaz eta Iturriaga jauregikoak hastekotan dira.

Mendibeltz zelai azpiko garajeak erosteko izena emateko epeak zabalik jarraitzen du. 300 plaza daude salgai, horietatik 240 izango dira garaje itxiak eta 40 marrak. Udalak 170 eskari jaso ditu oraingoz eta gustura agertu da Jon Redondo alkatea: *Legealdiak iraun bitartean pixkanaka saltzea da gure asmoa. Aurten, 100 garajeren diru-sarrerera aurreikusitzen aurrekontuetan eta asmoak gainditu egingo ditugula uste dugu.*

Garaje gehienak tamaina berekoak izango dira: 17,40 metro koadro; 5,66 metro luzeran eta 3 metro zabaleran. Prezioari dagokionez, 23.200 euro balioko du itxitako plaza bakoitzak.

HONDARTZAKO ESKOILERA

Itsasoaren indarrak eragindako kalteen ondorioz, eskoilera egokitzeko lanak hasi zituen abenduaren erdialdean Portu eta Itsas Gaietako zuzendaritzak. Harriak eta eserlekuak beren lekuetan jarzteaz gain, argiztapena ere konponduko dute. Izan ere, urak zirkuitulaburrak eragiten zituen eta argi-kapsulen isolamendua berritzeko eskatu du Udalak. Bide batez, farolak ere txukundu eta margo-tuko dituzte.

IGOGAILUA

Goiko kalera igotzeko bigarren igogailuari dagokionez, 3 hilabete lanak amaituta izatea espero duela adierazi du



Abenduaren erdi aldean hasi zituzten eskoilera egokitzeko lanak.

KARKARA

Redondok: *Aldaketak batzordean onartuta daude. Proiektua moldatzen ari dira orain eta udalbatzarrerara eramatea bakarrik falta da.*

BASERRIETAKO SEINALEAK

Ikermap enpresak gure baserri-izenak eta toponimia finkatu berri ditu Udalaren eskerari erantzunez. Euskal-

tzaindiaren Toponimia Batzordeko kide den Imanol Goikoetxearen lan taldeak herriko mapa batean bilduko ditu eguneratutako izenak.

Horrekin batera, baserri izenak eta bideak zehazten dituzten hiru panel jarri ditu Udalak: San Martin inguruan, Ortzai inguruan eta Luxarbe inguruan. Gainera, baserrietako bideek nondik jarraitzen duten adierazteko seinaleak jarri dira bidegurutzetan.

HURRENGO LANAK

Iturriaga jauregi lanak epe motzean hasiko dira. Abendu udalbatzarrean Fryssinet enpresari adjudikatu zitzaion obra eta, kontratua sinatu bezain laster, hasteko moduan izango dira. 18 hilabete izango ditu lanak guztiz bukatzeko.

Bidean ez galtzeko

Baserrietara heltzea oso zaila gertatzen da batzuetan; bereziki, ingurua ondo ezagutzen ez duten kanpotarrentzat. Orioko baserriak nahiko sakabanatuta daude, eta ez dugu jakiten zein auzotarantz abiatu eta are gutxiago zein bide hartu behar den baserri jakin horretara ailegatzeko.

Arazoa konpontzeko, seinaleak jarri ditugu baserri bideetan: bai auzoetan (handiak), baita bidegurutzetan ere (txikiagoak). Berriak jarri behar zirela aprobetxatuz, baserri-izenen grafia egokitu dugu eta Euskaltzaindiaren gomendioak jarraituz idatzi, erabilera sortzen diren zalantzak —Etxaiz, Itxaiz, Itzaiz...— argitzeke.

(Portzierto, forma zuzena Etxaiz da :-)

AMAIA USANDIZAGA | UDAL ARKITEKTO TEKNIKOA

HERRIKO IKASTETXEAK PREST DAUDE INAUTERI GIROAN MURGILTZEKO

Mozorroak prest giro onean inauteriekin gozatzeko

Makina bat ekitaldi izango da datozen egunetan inauteriak direla-eta. Izango du jendeak zer ikusi eta zertan parte hartu ongi pasatzeko.

Urtarrilaren 31n, ostegun gizenarekin, hasiko dira inauteriak eta otsailaren 5ean bukatuko, inaute asteartearekin. Segidan dituzue herriko ikastetxeek eta Txurumuski elkar-teak, nork bere aldetik, pres-tatutako egitarauak.

ESKOLA

Otsailaren 1ean, ostiral mehe-arekin, sartuko dira giroan Zaragueta eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Hasteko, goizean, kaldereroz mozo-rrotuta ibiliko dira herriko kaleetan barrena. Kalejira horretan, musika eta kalde-roen ohiko hotsak entzun ahal izango dira. Tarteka, geldialdiak egingo dituzte elka-rrekin abesteko.

Arratsaldean, berriz, joko-ak eta txokolatada izango dira hurbiltzen diren gutzientzat.

IKASTOLA

Urtarrilaren 31 aukeratu du Ikastolak inauteri jaia egiteko. 14:30ean, LHko ikasleek jolasak izango dituzte DBHko ikasleek antolatuta. Mozo-rrotuta hartuko dute parte gutziek; 15:30ean, HHko ikas-leak Ikastola aurreko plazole-tara aterako dira, kalejiran, dantza egitera; 15:45ean, LHko ikasleek inauteriekin



Ikastetxeek, nork bere aldetik, ospatuko dituzte inauteriak.

KARKARA

**Urtarrilaren 31n,
ostegun gizona,
hasiko dira
inauteriak eta
otsailaren 5ean
bukatu, inaute
asteartearekin**

zerikusia duten dantza eta abestiak kantatuko dituzte, Ikastolako Olaxka koruarekin

batara; 16:15etik aurrera, berriz, gurasoek antolatuta, bertarutzen direnei txokolate beroa eta bizkotxoak banatu-ko dizkiete.

TXURRUMUSKI

Ikastolako pergolan dute hitzordua Txurumuskiko adiskideek, 17:00etan. Ondoren, desfilea izango da, eta Karelara joango dira jolas lehiaketa prestatu baitute han. Eguraldi txarra bada, pergo-latik Karelara joango dira, zuzenean.

LABUR

KANPINA

Kanpinerako zaindari bila

Udalak kanpinerako zaindari bat kontratatatu nahi du aldi baterako. Interesa duenak udal bulegoetan aurkeztu beharko du eskabidea, urtarrilaren 31 bitartean, astelehenetik ostiralerara, 08:30etik 14:30era. Hauek dira bete beharrekobaldintzak: gutxienez 18 urte izatea, gutxienez DBH, LH1 edo parekoa den mailako titulazioa izatea, lanpostuari dagozkion funtzioak euskaraz egoki betetzeko gaitasuna izatea, eta autoa gidatzeko B1 karneta izatea.

BABES LEKUA

Batzarra

Zaharren Babes Lekuko urteko batzarra izango da urtarrilaren 25ean, kultur etxean, 18:00etan. Bertan, 2007 urteko ekitaldi ekonomikoaren balantzea egiteaz gain, zuzendaritza batzordea berrituko da, besteak beste.

GIZARTEA

Plastikoak gutxitu nahian

Otsailean amaituko da *Poltsa dendaz denda* kanpaina eta 4.760 telazko poltsa banatu dira herrian. 45 dendak hartu dute parte plastikozko poltsak murrizteko ahalegin horretan.

Dorronoro Denda
1961etik zure enbua
**AUKERA HANDIAGOA
FRUTATEGIAN**
Tel 943 83 09 37

Pinturak ELKAR
pintura eta papezate lanak zoru leunketa
Abendaño Industrialdia
943 83 08 45 / 919 60 23 05
ZARAUZ

ertza
Hamabostero produktuen promozio berriak, zatozi!

KARELA JENDEZ BETEKO DA, SALGAI JARRITAKO 800 SARRERAK LEHEN EGUNETAN AGORTU BAITZIREN

Pirritx eta Porrotx ikusteko amorratzen daude txikiak

Herriko txikiak hitzordu berezia dute gaur Euskal Herriko pailazo ezagunenekin. Pirritxek eta Porrotxek *Eskerrik asko!* ikuskizuna aurkeztuko dute Karelana.

Ez dago sarrerarik, egunak dira agortu zirela. Ikastolak salgai jarri zituen 800 txartelletatik, 600 Orion saldu dira, lehen egunetan. Gainerakoak Aian, Zarautzen eta Getarian jarri zituzten salgai. Horiek ere saldu. Doazen lekura doazela, gauza bera gertatzen da pailazo hauen emanaldietan. Sarrerak lehen egunetatik agortuta, jendea kanpoan sartu nahian eta, zenbait kasutan, bi saio segidan egin behar, dagoen eskariari nolabait erantzuteko. Karela, haurrez eta hain haur ez direnekin beteko da Euskal Herriko pailazorik maitatuenei ongi etorri beroa egiteko.

MARI MOTOTS GAIXORIK

Minbizia du gaia Pirritx eta Porrotxen azken lanak. Azken



Minbizia du gaia Pirritx eta Porrotxen *Eskerrik asko!* ikuskizunak.

WWW.KATXIPORRETA.COM

ikuskizunetako protagonista, Mari Motots txikia, ospitalean da. Koloretako zapia darma buruan, botikakilerik gabe utzi duelako eta piratetara jolasten da Joxe piratarekin.

Han dagoela, pailazoen bisita izango du eta bihotza sendatzen duen dantzaikasiko du haiekin. Aurkeztuko duten *Eskerrik asko!* ikuskizunaren CD bikoitza Durangoko azo-

kan salduenetakoa izan zen. Bitxikeria bat ere badakar abestien artean: *Maite zaitut* kantu arrakastatsuen bertsioa, T'estimo, rokeragoa eta katalanez abestua.

jaletxea
logelak
gazteategi
Elkano auzoa
943 13 16 06

ERROTA
- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak
Tfnoa: 943 83 54 65

AHOKULARITZA
Fiscal, laboral, kontable
Eugenio Garmendia
ASEGURU ARTEKARIA
IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Leburdi 33 bidea - ORIO
Autobus parada ondoan

RAMIRO
argazkiak
www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

Gabon
TABERNA
Plater, hotzak, pintxoak
Tfnoa: 943 83 06 09

LABUR

PLAIEROAK

**Xixario taldea
4. da**

Denboraldi erdia eginda, sailkapenean 4. dira Xixario-ko neskak, Arazi-Txan-gurro liderrarengandik 9 puntura. 6 partida jokatu dituzte guztira; horietatik, biirabazi dituzte, bakarra galdu eta gainerakoetan, berdinketarekin konformatu behar izan dute.

Hurrengo lehia azaroren 27an izango dute Arana-Ecoven taldearen aurka.

SOKASALTOA

**Errekorrik ez
Aranburuk**

San Anton egunean, urtarrilaren 17an, hautsi nahi zuen Julio Aranburuk berea den munduko errekorra: 3.000 salto 14:26 minututan. Getariako frontoian egin zuen saiakera eta 30 bat segundo-rengatik ez zuen marka berririk jarri. Triste eta aldi berean, itxaropentsu agertu da Aranburu, bi azken saiakeretan jarritako helbururik lortu ez badu ere, marka iritsiko delako esperantza du-eta.

PILOTA

**Udaberri
txapelketa**

Urtarrilaren 27an hasiko den Udaberriko pilota txapelketan herriko hainbat pilotari arituko da lehian: Egoitz Makazaga eta Aitor Salagre Usurbilgo Andatzarekin; Ibon Aranalde, Añorgarekin; eta Aimar Galarraga, Tolosako Aurre-ra-Saiazekin.

Bestalde, Orioko pilotata elkarteak VI. eskupilota txapelketa herrikoia antolatatu du. Bertan izena emateko epea otsailaren 15ean bukatuko da.



Azken partidaren 8-38 irabazi zioten Xurumurru taldeko mutilek Leitzarangoei.

J. LIZARRALDE

JOKATUTAKO 9 PARTIDETATIK GUZTIAK IRABAZI DITU ESKUBALOI TALDEAK

Gipuzkoako azken faserako sailkatu da Xurumurru

Gipuzkoako txapelketako azken fasea jokatzeko sailkatu zen Xurumurru eskubaloi taldea aurreko asteburuan.

Gipuzkoako txapelketaren lehen aldia amaitu berri dute Xurumurru eskubaloi taldeko infantil mutilek. Jokatutako 9 partidetatik guztiak irabazi dituzte eta beren multzoko lehen postuan amaitu dute, 18 punturekin. Gipuzkoako azken faserako txartela eskuratu dute modu horretara, multzo bakoitzeko lehen-hiru taldeak sailkatu baitira.

Urtarrilaren 26an jokatu da lehen jardunaldia eta kanpoan izango dute oriotarrek aurreneko lehia, Legazpiren kontra.

Aldi hori amaituta, sailkapeneko bi lehenak Euskadiko azken fasean arituko dira. Apirila aldera izango da hori.

EMAITZA ONAK

Denboraldiaren balorazioa egiterako orduan, orain arte izandako emaitza bikainak azpimarratu ditu Joseba Unanue entrenatzaileak: Gipuzkoako *Txapelketan partidarik ez galtzeaz gain, Urrietako Eguberrietakoa irabazi genuen*. Horrek taldearen morala igotzeko balio izan ziela gehitu du, taldeko bi jokalaririk garrantzitsuenetarikoa alboan izan gabe, txapela etxera ekarri baitzuten.

Gainera, Gipuzkoako txapelketako goleatzailearik fina ere beren artean dute: Jon Azkue. Unanueren hitzetan, guztien meritua da hori: *talde osoa alboan duelako eta primerako laguntazilea delako da Azkue goleatzailearik onena. Taldekideek baloiak eskura jartzen dizkiote eta berakondo bukatzen ditu jokaldiak.*

Entrenatzaileak adierazi

Jokatutako 9 partidak irabazi dituzte eta multzoko liderrak dira Gipuzkoako txapelketako 1. fasea bukatuta

duenez, Euskadiko txapelketa jokatu eta Espainiakorako txartela lortzea da aurten jarri duten helburua: *talde polita dugu, jokalaririk guztiak adin berekoak dira eta aspalditik ezagutzen dute elkar. Lan txukuna egiteko aukerak ditugula uste dut.*

ZOKKETA

Xurumurruk egindako Gabonetako zokketako home-zinemaren irabazlea Mikel Loidi izan zen, 4.129 zenbakiarekin.

ELENA ETXEBERRIA | ORIOKO BATE BIZKORRAK TALDEKO JOKALARIA

“Iazko emaitza berdindu nahi dugu aurtengoan”

Donostia Hiria Torneoan txapeldunorde izan ondoren, denboraldia prestatzeari ekin diote OBB taldeko neskek.

Prestaketa gogorrarekin hasi al duzue urtea?

2008a lasai hasi genuen, erlaxatuta, Donostia Hiria Torneoa bukatu berria baitzen, baina lanerako ordua iritsi zaigu. Martxoko azken aste-buruan hasiko den denboraldia prestatzen gabiltza orain. Fisikoa lantzen hasi gara: korrika saioak, abdomin-lak... Bestalde, sofbola oso kirol teknikoa denez, pelotarekin etengabe ibiltzea ere garrantzitsua da.

Taldean aldaketarik izan al duzue?

Iazko talde berdintsua daukagu. Pare bat baja izan ditugu: Eider Murillo, esaterako, Valentziako *Antorchata* taldean arituko da aurtun. Han ari da ikasketak egiten eta mugitzen jardun behar hori nekagarria egiten zitzaion.



Denboraldia prestatzen buru belarri dabilta OBB taldeko neskek. E.ETXEBERRIA

Joandakoen lekua betetzeko, berriz, Zarauzko eta Donostiako jubenil kategoriakoak igoko dira Ohorezko

mailara. Joanka kubatarra ere gurekin arituko dalehen aldiz maila nagusian, iaz lehenengo mailan jokatu zuen eta.

Kadeteak jubenilei laguntzeko eta hauek Ohorezko mailan gurekin jokatzeko prestatu nahi ditugu

Etaz helburu jarri dituzue denboraldirako?

Ohorezko mailan iazko 3. postuarekin konformatuko ginateteke, talde gaztea daukagu eta. Esan beharrik ez dago, hori baino gehiago lortzeko lan egingo dugula. Pentsatzen jarrita, European jokatzeko ere falta zaio taldeari, baina horretarako txapelketa irabazi beharko genuke.

Hala ere, gure asmo nagusia kategorien artean jarraipena lortzea da. Kadeteak, oriotarrak denak, jubenilei laguntzeko prestatu nahi ditugu. Eta horiek ohorezko mailan gurekin joka dezaten saiatuko gara.

ZOKKETAK



Futbol eta areto futbol taldeeen zozketetako sariak

Orioko Futbol taldeak urtero egin ohi duen Erregeetako zozketaren aurtengo irabazlea Maribi Urretabizkaia izan da. Berea izan zen zorteko txartela, 7.657 zenbakia zuen, hain zuzen.

Honenbestez, bizikleta, telebista, xigorgailua eta jaki goxoz betetako otarra jaso zituen Maribik, Orioko futbol taldeko kide Fede Bergadoren eskutik.

ORIOKO TABERNAK

Ez da herrian izandako zozketa bakarra. Areto futbol taldeko lagunek ere errifak izan dituzte salgai eta urtarrilaren 19an atera zituzten zenbakiak. Horrela, 0046 zenbakia-ri egokitu zaio Tenerifera bidaia eta 1.151ri bi lagunentzako afaria. Karelara agertu beharko dute irabazleek hila-beteko epean sariak jasotzera.

ORGANOAREN IRAGANA, EZAUGARRIAK ETA BITXIKERIAK JASO DITU JUAN REKARTEK

San Estebango organoaren historia eta istorioak

Aiako elizak organoa izan du 1730 baino lehenagotik. Donostiako elizbarrutiko artxibo historikoan jasota dago Aiako organoetan konponketa lanak egin izan zituztela 1746tik aurrera. Baina gaur egun dagoena 1920an egin zen. On Leandro Urretarrega orduko parrokoaren araberak, zahar bat ordezkatzeko eraiki zen, zaharraren hodiak 700 pezetatan saldu ondoren. Aquilino Amezua eta konpainiak egin zuen berria. 56 nota-ko bi teklatu ditu eta 30 pedal.

Organo berria 21.000 pezeta ordaindu zen, diru dezente garai hartan. Dirutza hori eskuratzeko, oraingo organistak, Jose Ignacio Zuloagak kontatu digu berak entzundako istorioa. Sortutako gastua kitatzeko, elizan gordeta zegoen armadura bat saldu egin zuten. Metalezko trajeak jatorria ezezaguna zuen, baina oso berezia omen zen. Milanen (Italia) egindakoa zen, XVI. mendean, noble-jatorriko batentzat. Manierista estilokoa zen, altzairuz egindakoa, eta urrez eta zilareez damaskinatua. Ikatz-handiki iparamerikar batek erosi zuen, eta elizari ordaindu zituzkion 50.000 pezetak, beste gauza batzuen artean, organoa erosteko eta elizaren teiltua konpontzeko erabili zituzten. Egun, soinburdina New Yorkeko *Metropolitan Museum of Art*ean dago gordeta. Hala ere, 2003an Genevako museoak (Suitza) erakusketa antolatu zuen horrelako trajeak ikusgai jartzeko, eta bertara eraman zuten Aiako jantzi berezia, eta aiar talde bat haraino joan zen jatorri aiarra zuen armadura eza-gutzera.

Organora bueltatuz, Amezua eta Konpainiak organo-egile garrantzitsuak ziren Eus-



la konturatu gabe, New Yorkekin eta Genevarekin lotu du Aia organoak.

JUAN REKARTE

Organo berria 21.000 pezeta ordaindu zen, diru dezente garai hartan. Gastua kitatzeko, elizan gordeta zegoen soinburdin bat saldu zuten

kal Herrian. Aquilino, San Esteban elizako organoa egin zuena, organo errromantiko- en egilerik inportanteena zen, eta berak egindako batzuk Frantziako organo ezagunen parekoak dira.

Aiarentzat egindakoa estreinatuz, Jose de Olai-zola ekarri zuten herrira, Donostiako Santa Maria basi-

Armadura New Yorkeko Metropolitan Museumean dago. 2003an Genevako (Suitza) museoak antolatutako erakusketa batean egon zen ikusgai

likako organo-jolea eta kape- ra maisua. XX. mendeko Eus- kal Herriko musikari inpor- tanteak harreman estua izan zuten Aiarekin, oporraldiak hemen pasatzen baitzuten. Izan ere, konposatu zituen opera ezagunen artean *Oles- kari Zarra* dugu, musikariak Aian bertan izan zituen espe- rientzietan oinarritu dagoena

eta Urdanetan kokatu zuen opera horren historia.

1993an Hernaniko Usa- biaga enpresak organoa zaharberitu zuen. 1.500.000 pezetako lanei oniritzia emateko, Jose Manuel Azkue, egungo Santa Mariako organista ezaguna ekarri zuten elizara.

Tresna berezia da, beraz, Aiako organoa eta Euskal Herrian hain emaitza onak eman dituzten instrumen- tuen artean koka dezakegu. Ezaugarri egokiak ditu eliza- ko musika zein solistak era- biltzeko, eta, bide batez, musi- ka-tresna sendoa eta kalitate onekoa da. Inbertsio handi samarrak eskatu zituen bere garaian, baina denbora luze- an gozatuko dugu haren soi- nuarekin.

SORTUTAKO ENERGIA EZAGUTARAZI, AZTERTU ETA ERABILIKO DA

Energia berriztagarriak jarriko dituzte Pagoetan

Mota askotako energia berriztagarriak jarriko dituzte martxan Pagoetako parkean, jendeak bertan ezagutzeko eta ematen dutena aztertzeke eta erabiltzeko.

Joan den ostegunean haize errota handia eraiki zuten parkean, Iturrran baserriaren atzeko belardian. Hiru eremu dituen proiektuaren aurreneko pausoa izan zen. Bertan Iñaki Aizpuru parkearen zuzendariak zehaztu zizkigun dituzten asmoak eta helburuak: *Energia berriztagarriak garrantzitsuak dira, baina jende arruntarentzat dago inon martxan ikusteko aukerarik adierazi zigun Iñakik. Asmoa da hiru motakoak martxan jartzea, emaitzak aztertzea eta lortzen dena jende aurrera ekartzea. Horrela aukera gehiago izango dute erabakitzeko energia berriztagarriko sistemaren bat etxe edo baserri ondoan jarri nahi duten, autonomoagoa izateko.*

HIRU ENERGIA ITURRI

Hiru energia iturri aukeratu dituzte proban jartzeko: haizea, lurra (geotermikoa) eta eguzkia. Aizpuruaren arabera, *Askotan entzuten dugu horrelako batek hainbat kilowatio emango duela, baina gauza da non, zer baldintzetan, noiz. Hemen emaitzak neurtu nahi ditugu.*

Geotermikoa martxan jartzeko, baserri atzeko belardian 1.500-2.000 metro koa dro lur altxatuko dute, metro beteko sakonean tuboak sartzeko. Bero-ponpa baten bidez lurraren azaleko eta lur azpiko tenperaturen aldea aprobetxatzen du sistemak beroa sortzeko. *Zelaia lehen bezala geldituko da esan digu Aizpuruak. Sortutako beroa erabiliko da lorategiko berotegietan, baina berdin erabil*



Haize errota sortzen duen energia neurtu eta erabiliko dute bertan.

KARKARA

Hauek ikusita, aukera egongo da erabakitzeko energia berriztagarria etxean jartzea merezi duen

daiteke etxea berotzeko. Sistemak erabiltzen duen energia baino hiru aldiz gehiago sortzen omen du, eta udatik aurrera egiaztatuko dute.

Eguzki plaken teknologia azkar aurreratzen doanez, ziurrena da bi motakoak jarriko dituztela, bien emaitzak aztertzeke.

Haize errota jartzeko 35.000 euro zeuden 2007ko aurrekontuan eta lurretik beroa ateratzeko sistemarako 155.000 euro. Eguzki plakarena 2008ko aurrekontuan dago

eta momentu honetan lehia-ketan dago.

ERABILERA ARDURATSUA

Aipatutako hiru kasuetan produktioa ez ezik, kontsumoa ere hartu nahi dituzte kontuan, askotan energia sortzeko, energia erabili behar delako eta jakin behar da zenbateraino merezi duen.

Energiaren erabilera arduratsua gatzetxoei ere transmititu nahi diete. Iturrran baserrira eskolako ume talde mordo eta etortzen da, eta ikasten eta aztertzen dituzten gaien artean beste bat izan liteke energiarena, beste inon hurbildik ezagutuko ez dutena.

Aizpuruaren hitzetan: *Diputazioa jabea izateak lanak errazten du. Aukera onak eskaintzen ditu: haizea, eguzkia, belardia... eta sortutakoa energia parkean bertan erabiliko da.*

LABUR

GIZARTEAK

Agenda lepo

Otsailaren 1ean Inauteri Eguna ospatuko dute Lardizabal eskolan.

Talo-jana, berriz, otsailaren 10ean, 17:30ean izango da, Lardizabal eskolako Guraso Elkarteak antolatuta. Plazan egingo da, edo, eguraldi txarrarekin, frontoian. Bertan presatutako taloak txistorrarekin eta txokolatearekin eskainiko dituzte, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzeko.

4an, Santa Ageda bezperan, eskolako haurrak baserri joango dira kantari eta eskean, eta arratsaldean herrian bertan jarraituko da ospakizuna. Jasotako dirua Guraso Elkarteak jasoko du haurrentzako ekintzak antolatzera.

Udaberria ere bete dator aurten: Txakolin Eguna martxoaren 30ean izango da, Euskal Herriko Itzulia Aian izango da apirilaren 11n eta 12an, Landare Berezien Azoka 26-27an antolatu da eta Asentzio Eguna maiatzaren 4an.

Azkenean, Lardizabal Eskolaren urteurrena ikasurtearen bukaerara pasa dute, gauzak hobeto antolatzeko.

LANDARE AZOKA

Catering zerbitzuak

Urtero bezala, catering zerbitzua izango da Landare Berezien Azokan, apirilaren 26 eta 27an. Lan hori hartu nahiko luketeen herritarrek otsailaren 11 arte izango dute, menua eta aurrekontua aurkezteko aukera. Zehaztasun gehiago izateko, udalera edo Iturrran Parke-terera deitu behar da. Tlf: 943 13 11 44 (Udala); 943 83 53 89 (Iturrran baserria).

AIAKO LEIHOA

Liburuak

Izugarri gustatzen zaizkit liburuak. Ez irakurtzea bakarrik, baita liburuak berak ere.

Donostiara joaten naizenean ia beti bi gauza egiten ditut: kafe bat hartu eta liburudenda batetara joan.

Bertara sartzean denboraren erreferentzia galtzen dut. Ekonomiari buruzko liburuetatik, bidaiei buruzko liburuetara pasatzen naiz eta bukaerarako uzten ditut nobelak. Labetik irten berriak diren horiek gustatzen zaizkit gehien, kea dariela eta berri usainez estalitakoak.

Ona denean, benetan bizitzen dut liburuak kontatzen duen istorioa. Pertsonaiak imaginatzea eta ingurunea bera ere suposatzea, hau da, irudimena erabiltzea, gauza bitxia bihurtzen da.

Liburu batzuk hain onak dira pena ematen didala amaitzeak. Eta pena pixka bat ere ematen dit irakurtzen ez duen jendeak. Jakingo balute zer ari diren galtzen!

Garrantzitsua iruditzen zait irakurtzen txikitatik hasita, edota grina hori sortaraztea. Gurasoak irakurleak direnean, normalean, errazago izaten da haurrak ere hala izatea. Txikitatik ohitzen dire-

nean ipunak entzuten lehen-dabizi eta irakurtzen aurrerago, seguraski aurrerago ere irakurtzen jarraituko dute.

Txikia nintzenean, liburutegirik ez geneukan herrian, baina *bibliobus* izeneko autobus txuri bat etortzen zen hamabostaldi. Berezia zen eserlekuen ordez, liburuez josita baitzegoen eta liburutegi baten antzera ibiltzen zen: bertan sartu eta liburu bat

aukeratu ondoren fitxa bat betetzen zen aukeratutako liburua etxera eramateko eta handik bi asteetara, liburutegi mugikorra bueltatzean, liburua itzuli behar zen.

Garai hartan, Gipuzkoan herri ugari ziren liburutegirik gabe, batez ere herri txikiak, eta horregatik jarri zen marxtan proiektu hori.

Gaur egungo umeei arraroa egingo litzaike horrelako gauza bat, baina ni irrikitan egoten nintzen autobus hura noiz etorriko zain.

Gaur ere oraindik Nafarroako zenbait herri txikitan pasatzen omen da *bibliobus* izenarekin ezagutzen den autobusa.

MAIDER LASA

Liburuko pertsonaiak imaginatzea eta ingurunea bera ere suposatzea, gauza bitxia bihurtzen da

Gurasoak irakurleak direnean, normalean, errazago izaten da haurrak ere hala izatea

TXOKOAK ETA JENDEA



Doneztebera irteera 1997an

Behetik hasita, hauek dira lerroz lerro agertzen direnak: Gorka Agirreurreta, Josu Sarobe, Igor Zulaika, Txaber Azkarate, Aritz Arregi, Mikel Azpiroz, Imanol Mugika, Ziratz Aldanondo, Agustin Zulaika, Ane Azkarate, Jon Mujika, Xabier Gaiton (irakaslea), Eñaut Gurutzeaga, Andoni Irigoien, Unai Arruti, Ainara Saizar, Aharoa Zuloaga eta Maitane Zumeta, Estitxu Mendizabal, Juanma (irakaslea), Aitor Iribar, Ixone Fernandez eta Nerea Azpiazu.

Iñaki Iturainek eman zigun gizon honen berri: bazela idazle bat Orion, inoiz liburu bat argitara eman ez arren, sekulako lana egina zuena, gaztelaniaz zein euskaraz.

Arantzazuko Ama auzoan bizi zela eta Pako Arruabarrena zuela izena.

Deitu genion, atseginez hartu gintuen etxean eta gozo jardun ginen.

PATXI URANGA

Esaiguzu Pako, zenbat denbora da idazten hasi zinela?

27 urterekin hasi nintzen, nire kabuz. Egun 84 urte ditut, beraz, 57 badira idazten dudala. Betidanik izan dut gustuko, haurra nintzenetik.

Nolakoak izan ziren lehen pausuak?

Poesiarekiko afizioa Joakin Aldaberengandik jaso nuen, poesia landu baitut batik bat, narrazioa baino gehiago. Joakinek olerkiak idazten zituen garai haietan, festetako programarako. Nik, zaletasuna banuenez, gustura irakurtzen nituen haren idatziak eta horrela hasi nintzen. Lehen olerkiak festa programarako egin nituen, Joakinenekin batera argitaratzen ziren. 10 urtean idatzi nuen programa horietarako.

Olerkigintzaz ezer bazenekien?

Egia esan, ez; barrutik ateratzen zitzaidana idazten nuen. Berak arauak bazirela gogorarazten zidan, bazekien



KARKARA

PAKO ARRUABARRENA | IDAZLEA

“Zein esperientzia izan dudana bizitzan, horretaz idatzi dut”

olerkigintzaz. Apaiz izateko ikasten aritua zen, gero sakristau, eta baldintzak kontuan hartu beharra zeudela esaten zidan beti.

Hasiera batean, oso zaila egiten zitzaidan, zeren arauak eta ez nituen batere ezagutzen. Hark esaten zidan arauak jarraitu eta baldintza haiek ikasi behar nituela, kontuan hartu, alegia. Horrela hasi nintzen. Liburu bat ere eskuratu nuen, *Como se comenta un texto literario* izenekoa, bertsoak eta nola osatzen ziren adierazten zuena, katedrati-ko batek idatzia. Horrela hasi nintzen olerkigintza ezagutzen eta bertan murgiltzen. Okerrak egingo nituen, baina hasieran baino gutxiago, seguru.

Trebetasuna berezkoa zenuen, beraz.

Ez dakit trebetasunaz hitz egin litekeen, obsesiboa gehiago izan delakoan nago ni. Gainera, abilidadea bera ere landu beharra dago, jardunaren poderioz lortzen baita erraztasuna. Lehenago esan dizudan moduan, hasiera ez zitzaidan samurra egin, baina gero eta errazagoa egiten hasi zitzaidan.

Izan ere, txikitatik izan nuen irakuketarako zaletasuna. Liburutegiko gelan zeuden nobelei eta begira orduak pasatzen nituen. Bazen bat gustuko nuena, Charles Dickens. Harrigarria da zeinen ondo idazten zuen, zer nolako gauza sinpleetatik ateratzen zituen ideiak eta nola lantzen zituen eta, gainera, hizkera ulerterraz baina goxo batean. Ederki eskribitzen zuen Dickensek, bai horixe! Haren nobelak irakurriz, *nik ere zerbait egin behar diat!* esan nion nire buruari. Horrela hasi nintzen. Lehenago esan dizudan moduan, hasiera ez zitzaidan samurra egin, baina gero eta errazagoa egiten hasi zitzaidan. Entzundako zenbait iritzik jarraitzeko indarra eman zidaten, gainera.

Kontaiguzu.

Don Iñigo apaiza zenak nik egindako olerki sorta bat

irakurri zuen behin, sakristauak berari propio emanda. Eta halaxe esan zuen: *la de este muchacho es una inteligencia nada común; si hubiese estudiado...* Segitzera animatu ninduen haren esanak, *zerbaiterako balio badiat, ea ezer egiten dudan* pentsatu nuen.

Horren harira, Basarri bertsolaria zena etorri zait gogorra. Hura gizon ikasia zen eta trenean egiten nuen askotan topo, hura Zarauztik Donostiara joaten zen eta ni, berriz, Orion geratu. Hark esplikatzen zizkidan gramatika kontuak eta idaztea gauza zaila zela ere aipatzen zidan. Bazekien, bai, kontu horien berri.

Baina ez zenuen idaztea ofiziotzat hartu, zergatik?

Ofizioa? Keba. Hasieran, Zarautzen aritu nintzen. Gero, itsasoan eman nituen bi urte, eta handik Lertxundineko tailerrera pasa nintzen, kotxearekin lanean hasi aurretik. Azkenean, taxista izan nintzen zenbait urtez. Taxistarena ez da diru asko ematen duen ofizioa, lotua ere bada eta asko eskatzen du; gainean egon behar duzu.

Lanetik kanpoko afizioa izan da idaztearena, beste zenbaitekin batera, egurra lantzea, esaterako. Beraz, ezin esan dezaket idazten aritu naizela beti. Batzuetan, astebete pasatzen nuen ezer egin gabe; beste batzuetan, akaso, ideiarekin bat okurritu eta idazteari ekiten nion... Ez periodista batek bezala, segi eta segi, baizik eta tarteka, neronen burua behartu gabe. Ideiak etorri ahala, apuntatu eta, ondoren, landu egiten nuen. Normalean, koaderno bat izaten nuen aldean.

Zeri buruz idatzi izan duzu?

Zein esperientzia izan dudan bizitzan, horri buruz idatzi dut. Lanetik kanpo izan ditudan etako bat itsasoa izan da: haren edertasuna trankil dagoenetan edo zeinen bel-
durgarria izan daitekeen hase-
rretzen denean, olatu handiak sortzeraino. Ondo dakit zein arrisku pasa behar izaten ziren barra inguruan, horre-



gatik *Itsas taupadak* izeneko olerki sorta osatu nuen. Beste bat semearen istripua izan zen. Zaurituta, Toledora eraman zuten. Zenbat egun han, mugitu gabe, istripuak zer ondorio ekarriko zion jakin ezinik. Elbarri geratu zen. San Pedro egun batean, gurpildun aulkian atera zen pasea-

tzera. San Inazio bezala, hura ere zaurituta eraman zuten etxera, etsita, eta San Pedro egun batez hasi zen hobera egiten. Gertakari horretan inspiratuta, semearen arekin bat eginda, beste olerki sorta bat idatzi nuen. Horrelako gaiak erabili izan ditut. Erlizioak eta itxaropenak pisu handia izan



KARKARA

dute nire idatzietan.

Baduzu bereziki maite duzun libururik?

Badut, bai, Aiako moja batekidatzi zuen, gainera. Sor Justina Aldalur zuen izena. Kontua da, sor Maria Jesus de Agreda izeneko moja batek XVII. mendean idatzitako *Mis-*

tica ciudad de Dios prosazko liburua oinarriztat hartuta, bertotan jarri zituela Ama Birjinaren bizitzako gorabeherak sor Justinak. Nik, berriz, bertso haiek hartu eta erdarara itzuli nituen banan banan. Hura irakurrita, txunditurik, berehala pentsatu nuen hori zela guztiaren oina-

OLERKIGINTZA

“Poesiarekiko afizioa Joakin Aldaberengandik jaso nuen. Joakinek olerkiak idazten zituen festetako programarako. Horrela hasi nintzen. Joakinenekin batera argitaratzen ziren. 10 urtean idatzi nuen programetarako”

BIZITZA IDAZTEN

“27 urterekin hasi nintzen, nire kabuz. Egun 84 urte ditut, beraz, 57 badira idazten dudala. Betidanik izan dut gustuko, haurra nintzenetik”

JORRATUTAKO GAIK

“Zein esperientzia izan dudana bizitzan, horri buruz idatzi dut. Erlijioak eta itxaropenak pisu handia izan dute nire idatzietan”

LITERATURA LEHIAKETAK

“Irun hiria izeneko lehiaketan aurkeztutakoa naiz, bi edo hiru aldiz gainera. Baina zaila da hortik ezer ateratzea”

ARGITARA EMATEAREN BEHARRA

“Argitaratu nahi nituzke, jendeak ezagutu ditzan. Bestela, etxeko apaletan ahaztuta geratzekotan, alferrikakoak dira egindako guztiak”

ERRETIROA HARTUTA

“Dagoeneko utzita daukat, amaipuntua jarri nion nire jardunari. 84 urterekin bistak, jada, ez du askorik laguntzen eta oroimenak ere tarteka kale egiten digunez, hobe bere horretan utzi eta beste afizioen bati heltzea”

23 LIBURU IDATZIAK

“Orain artean idatzitakoarekin nahikoa dudala pentsatzen dut, 23 liburu guztira; horietatik 13 olerki liburuak. 2.900 orrialde inguru dira, nire istorio eta olerkiekin bete ditudanak”



ria, Elizaren ama. Eta bertso guztiak, bana-bana, euskararik gaztelaniara itzultzeari ekin nion.

Eta zuk idatzi dituzunetik, baten bat nabarmenduko zenuke?

Ez dakit, bada. Denetarik izango da, batzuk ederragoak besteak baino, itsusiak... Zaila da denen gustukoa egiten; baina ni, behintzat, gustura geratu naiz ez baitut, sekula, inori buruz ezer txarrik idatzi. Eta baten bat aipa-

tzea... *Inmaculada Concepción* libururako egindako lehen entsegua, adibidez: 40ko hamarkadan idatzi nuen, Hitlerren-etagaraian. 200 ume kontzentrazio eremu batean harrapatuta geratu eta emakume amerikar bat bidaltzen dute haiek askatzera. Emakumeak buruzagi nazi batekin konfiantza hartzen du, maiteminduaren itxurakegin, eta umeak askatzeko modua egiten du. Hori bakar bat aipatzearen, zeren askoz gehiago idatzi izan ditut eta lekuak

ere bat baino gehiago deskribatu: Arjelia, Saudi Arabia... Hori bai, ez dut ezer txarrik esaten, gauza onak bakarrik; baina, halere, tarteka kezka sortu izan zait, nolatan sartu naizen hor... ez bainuke inork ezer gaizki hartzerik nahi.

Eta ez zaizu sekula burutik pasa egindakoak argitara ematea?

Irun Hiria izeneko lehiaketan aurkeztutakoa naiz, bi edo hiru aldiz gainera. Baina zaila da hortik ezer ateratzea.

Batean olerkiak ere aurkeztu nituen. Gainera, lehen, ezer tokatu ez arren, etxera bidaltzen zituzten bueltan idatziak. Orain, berriz, desegin egiten dituzte. Eta pena ematen dit horrek, kopiak ateratzen aritzeak, baduelako bere lana. Baina horrela dago legea jarrita.

Eta lehiaketa batetik kanpo?

Argitaratu nahi nituzke, jendeak ezagutu ditzan. Bestela, etxeko apaletan ahaztuta geratzekotan, alferrikakoa



ak dira egindakoak.

Beti pentsatu izan dut norbaitek zuzendu beharko lituzkeela ezer argitaratu aurretik, ez bainaiz konsagratutako idazlea. Katedratikoeak bezala idatzi eta inork begiratu bat eman gabe, zuzenean, eza-gutzera emate hori ezingo nuke egin.

Beste lanen baterako ideia-rik baduzu buruan?

Ez, ez. Dagoeneko utzita daukat, amaiera puntua jarri nion nire jardunari. 84 urte-

rekin bistak, jada, ez du askorik laguntzen eta oroimenak ere tarteka kale egiten digunez, hobe bere horretan utzi eta beste afizioen bati heltzea.

Orain artean idatzitakoarekin gainera, nahikoa dudala pentsatzen dut, 23 liburu guztira; horietatik 13 olerki liburuak. 2.900 orrialde inguru izango dira, batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz, nire asmakizunekin, istorio, olerki eta abenturekin bete ditudanak. Asko ez, baina bada zerbait, ezta?

MARINELARI KANTA

“Marinela zer gertatzen zaizu hor olatuakin ametsetan, etxezale bihotza daukazu penatuz bakarrik bizitzean.”

“Tostartea lagazazu behingoz ta aurkitu nere etsipena, zure negarrak zer balio du eguna ez bada lortu dena.”

“Irabaziko zenduke pozik portuan erabat geldituta, itsaso lana lagata zatoz lorategi sortuz landatuta.”

“Arrosa politez lore asko hondartza duen etxe batean, bere kristal disdiratsuakin eta goxo Amaia atean.”

“Baina horrek ezpazaitu lotzen axolagabe konformatzeko, zure gorputza lurrean eta nahia ontzian joateko.”

“Pentsamendu sakonakin biok guazen itsasoak ikustera, misteriotsu mundu handiak zure aldarek daudezenera.”

PAKO ARRUABARRENA

ADARRETATIK HELDUTA

Badut, beraz banaiz

Denbora asko pasa da azkenekoz KARKARAN ikusi ginenetik. Orain arte, euskara, politika, islama eta antzeko gaiak izan ditut aztergai aldizkari honek eskaintzen dizkidan lerro hauetan. Kanpoan bizi izanak ordea, gizartearen izara aztertzeko beste ikuspuntu bat ezagutzeko aukera eman dit. Horregatik gaurkoan denoi zuzenean edo zeharka eragiten diguten gaiak izango ditut hizpide: inbidia eta materialismoa.

Orain dela zenbait urte, gaixorik geundenean, osasuntsu zeudenek inbidia sortarazten ziguten. Bikote arazoak genituenean berri, lehenengo egunean bezala funtzionatzen zutenei begiratzen genien; eta diru arazoak genituenean, dirua erruz zutenekiko bekaizkeria sentitzen genuen. Badaikit inbidia historian aspalditik izan den sentipena dela; baina gizartea aurrera doan heinean, kontsumoa eta globalizazioa gure bizitzetan bortizki sartzen ari diren heinean, bekaizkeria hori gero eta handiagoa bihurtzen ari dela iruditzen zait. *Pentsatzen dut, beraz banaiz* esan zuen René Descartesek. XX. mendeko bigarren hamarkadatik aurrera ordea, askotan entzun dugun esaldi hori, *Kontsumitzen dut, beraz banaiz* zateratzen. Gaur egun berri *badut, beraz banaiz* bihurtu da. Orain dela gutxi arte ez nintzen ohartu, nola zenbaitek beren burua,



AIORA LARRAÑAGA
IKASLEA

Praktika dezagun kontenplazioa, hau da, ikasi dezagun daukagunarekin gozatzeko

jabetzan dituzten ondasunekin identifikatzen duten. Batzuk adibidez, etxe, kotxe, bizikleta edota telebista hoberena izateagatik bereizten dira; norbaitek nahi gabe postu hori kentzen badie, bere nortasuna mehatxatuta sentitzen dute, ordutik aurrera ez baitira izango *etxe hoberena duen* pertsona hori. Egia da diruak, ondasunek... zoriontsuago izaten lagun diezaiguketela; baina aberastasun material horiei garrantzia handiegia ematen hasten garen momentutik aurrera azalduko da inbidia gure bizitzetan. Hau da, aberastasuna epaitzen denean, hau inguruko aberastasunarekin konparatzen da.

*Etxe hobe*a duen pertsona ondokoarena modernoagoa, politagoa edota hobe dela konturatzen denean, krisi existentzian murgiltzen da eta ondokoaren etxea baino hobe erosten aurkitzen du irtenbidea.

Kontsumitzaile mota horri kontsumitzaile harria esaten zaio; bere egoera eta beharrak kontuan hartu gabe, bekaizkeriaren sentimenduei soilik jarraituz funtzionatzen duena. Gauza materialei garrantzia handiegia ematen dieten pertsona horiek nortasun arazo larriak dituztela iruditzen zait. Bere bizitzaren ardatza ez baita duten errealitatea, lortu nahi dutena eta, azken batean, faltan sumatzen duten hura baizik. Nahigabeak, frustrazioak eta amorrak mendean harturik bizi dira eta bizitza desatsegin bihurtzen die horrek. Beren kabuz lor ezin dezaketen gogobetetzea, gauza materialen bidez noiz lortuko zain baitaude.

Aholku bat emango nieke, beren burua nolabait artikulatu honetan identifikatuta ikusi duten guzti horiei. Praktika dezagun kontenplazioa, hau da, ikasi dezagun daukaguna gozatzeko; inguruan duguna berriro pozez deskubritu eta maite ditugun pertsonak, paisaiak, zaletasunak eta eguneroko objektu kuttunak haintzat har ditzagun. Horiek baitira gure bizitzari zentzua ematen diotenak.

NIRE HONETAN

Eskerrak elkartei

Azken lau urteak kultur teknikari lanak egiten eman ditut kultur etxean eta esperientzia gustagarria izan da. Ona da, aldi behin, betiko martxako errutinatik atera eta zeregin eta lan berrietan sartzea, zure burua bestelako kontutan trebatzea, jende berriarekin harremanetan jartzea...

Lau urtetan, jakina, gazitik eta gozotik, denetik izaten da eta nire kasua ez da desberdina izan. Ez nago kexatzeko moduan, hala ere, gozotik askoz ere gehiago izan dut eta: bereziki, herriko kultur eragileekiko harremana. Orion kultur alorrean lan egiten duen elkarte eta talde asko daude, musu trukeko lan izugarria egiten dutenak, nahiz eta, askotan, ez ditugun behar bezala estimatzen. Elkarte horiek, eskarmentuak erakutsi didanez, beti prest daude laguntza emateko: festen antolaketan, ekitaldi berezietan, eguneroko zereginetan... Zorte handia da Oriorentzat horrelako elkarte sare osatua eta eraginkorra izatea eta zorte handia izan da niretzat elkarte horiekin esku esku lan egiteko aukera izatea.

Zor nien eta bego esana: eskerrak asko!

JABIER ZABALETA

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta errazimintak
Telefax: 943 831236 Euzko Gudari, 5

ITZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Asegurari-agerentza
ASEGURUAK
C C I
CARAÑA, ZILVETI, LACORT Y CIA, SA
Abeslari, 4-2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

KOLON TXIKI
Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

MOILA BAZTERRETIK

Logroñora Erasmus



JON AGIRRESAROBÉ TORROTZO

Zineko sarrerak eskuan palomita erostera hiru oriotar. *Gaur afaldu gabe bale gaituk! Tres de palomitas grandes y Coca-Cola.* Edari bakarria behar al zuen galdetu zion dendari erdal-dunak: “*Si, sólo yo. Esos no*

quieren. Luego beberán del mío”.

Ezin euskara mostradore-
etara eraman, baina Coca-
Colarenak badu bigarren ira-
kurketa bat. Ezin gaztelaniaz
bi esaldi segidan kateatu.
Batek ez du bestea kentzen.
*Ni moldatzen naiz, tonoa
antzemango zait nongoa nai-
zen, baina ez naiz nire mailaz
lotsatzen.* Oker gabiltza.
Negargarria da askoren maila.
Tartean nirea. Gurean
hamabost lagunetatik lau edo
bost libratzen dira *suspensio-
tik*: guraso erdaldunak dituz-
tenak eta Erasmus urteetan
luzatu dutenak. Eskola garai-
ko anekdotei barrezka aritzen
gara, baina gurea arzoa da.

Neronek unibertitate
garaian izan ditut buruhaus-
teak. Zazpi bat urte zaharra-
goa den ikaskide oriotar bat

nuen ondoan. Haiek algarak
klasean eskua altxa eta gaz-
telaniaz hizketan hasten nin-
tzen bakoitzean. Erasmus
beka lortzeko *destinoa* auke-
ratzen ari ginela hala esan
zidan behin: *hik Logroñora
joan behar huke!* Min eman-
ten du halakoak entzuteak
eta ezin isilik gelditu: *Ez, nahi-
koa izango duk larunbatero
hire koadrilakoekin potea-
tzea.*

*Zer axola dio zein hiz-
kuntzatan hitz egiten den?*
halakoak ere entzun behar
izan ditugu, *dile que bere anaia
gurekin ibilizala Oriokon* esal-
diaren ostean. Ez naiz inor
zuen etxean sartzeko, baina
egia da. Esateak min egiten du,
baita niri ere irakasleak arbe-
lera atera ninduenean pasa
nituenak burura ekarrita.

Zeinek lagunduko digu

**Erasmus bekarako
destinoa
aukeratzen ari
ginela hala esan
zidaten: hik
Logroñora joan
behar huke!**

gaztelaniaz hobeto egiten eus-
karaz bizita? Koadrilak naha-
sian ibiltzea herrigintzaren
onerako litzateke, gainera.

Gainontzekoan, animo.
Urtarrileko aldapa joan da.
Bentara bidean Munitan
gaude jada. Inauteriak, santa
eskea, berrogei eguneko gari-
zuma eta Aste Santua, aurten
inoiz baino luzeagoa gainera.
Konturatzeko epela gaine-
an. Konturatzeko *templado*.

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorio de Laurgain
Gailur eta Ardanegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 DND • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

BORDATXO

Platos gaso-gasotik

Tel: 943 13 30 14

**Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR**

943 83 05 37 / 943 83 27 47

sinergia investigación
fisioterapia

FISIOTERAPIA: Gerkoitz Arilegi eta Natalia Wierzen
NUTRIZIONISTA: Gertel Alzuri

ibat ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Fabrika: Agote Industrialka, Agote, 5, 20740 Zestoa

Erakusketak: San Prantzisko, 1, 20600 Zestoa

Alta Lertxundi, 21, 20610 Oñe, Tel: 943 99 49 26

**TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L**

TYORROAK - BALBUAK

Santiago eztoa - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIFUZKOA

AENOR kalitate ziurtagiriduna

LIZASO
dekorazioa

Eusko Gudariak 18, Tel: 943 83 01 84 Fax: 943 54 32

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12



OTSAILEKO PROMOZIOAK

FOTODEPILAZIOA

Emakumezkoak

- * Ingleak + Besoazpiak 150 €
- * Goiko ezpaina 20 €

Gizonezkoak

- * Sorbalda 100 €
- * Lepo-atzekaldea 60 €

Emakumezkoak / Gizonezkoak

- * Besoazpia 60 €
- * Bekain-tartea 20 €

FISIOTERAPIA

Otsailean zehar erositako bonoetan saio bat dohainik izango da

5eko bonoa + saio 1

10eko bonoa + saio 1

OTSAILEAN FOTODEPILAZIO EDO FISIOTERAPIA ZERBITZUA ERABILTZEN DUTENEN ARTEAN, 4 SOLARIUMEKO BONO ZOZKETATUKO DITUGU



Igo zaitoz haize berrietara!

Galeria I

943890416 - 677149932
galeria1orio@hotmail.com

GOZATEGI
FRUTA-DENDA

Eusko Gaudariak 11
943 83 12 81

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

taller mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.

urrutira joan gabe talde berria zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

ITB

Bisagrenen Industria Teknikoa, S.A.

Era guztetako bisagrak
Kazoletan gordetako bisagrak
Krisalezko ateen bisagrak
Bisagra automatikoak, etab.

Aranguren Industrialdia - Santiago osua
20160k. Ate (Garaioaren)
Tel. 943 83 05 08 - 29 Orrien - Telefax. 943 13 38 62

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekarria tel: 943 89 40 29
finka administratzailea faxa: 943 83 54 98
gestoria itsasadarra@itsasadarra.com

Ibai Ondo, 4 behea ORIO



Esnaleneneko petrilean

Esnal Hotelaren aldameneko petrilean lasai-lasai eserita daude goiko irudian agertzen diren lau lagunak. Bertan ageri ez bada ere, ezkerretara Alpontsoeneko etxea dago. Datu gutxi daukagu argazki horri buruz, datarik ere ez baina 60 urte-edo izango omen

ditu, gutxienez. Irudiaren kalitateak ere ez du askorik laguntzen, baina duten patxada eta haien arteko giro ona erakusten ditu, behintzat.

Hauk dituzue foto honetako lau protagonistak, ezkerretik hasita: Julio Dorronsoro Irastorza, Martin Bengoetxea

Ezenarro, Fernando Larrañaga Santxo eta Antonio Arruti, Errezilgo semea azken hori.

**ARGAZKIA ETA
INFORMAZIOA:
BIXENTE LARRAÑAGA XARPAS**

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Peikeria eta estetika mistoa

- Tinte berriak eta koloreak naturalak
- Deshekarako zirkul indurkorra
- Azkari esbalditza
- Pedilura
- Depilazioa

San Nikolas, 2 Tel: 943 85 51 70

**Automóviles
ZARAUTZ**

CITROËN ZEHITUZU OFIZIALA

toroak berrak
eta 4 berrak
saga

ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**TRAGOXKA
PUB**

pabtragoxka@hotmail.com
Aritzaga, 11 tel. 943 13 22 56

KRITIKA



Sirvase muy frio-sirvase muy caliente lanak Txorlitohead eta Discipulos de Dionisiosen kantak biltzen ditu.

KARKARA

Rockanrol zikina eta punka: probokazioa biniloan

Boring Old Fartzigiluak eta Musica Autonoma dendak ekoiztitzako hirugarren lana ekarri dut lerrootara. Santi Manterola oriotarra eta Alberto Bocos donostiarra daude ekimenaren atzean. Aurretik, *No Acepto!* punk eta jarkorearen inguruko dokumental arrakastatsua eta *Ruido de Rabia* taldearen DVDa argitaratu eman zituzten. Esan beharra dago, *No Aceptok* oso harrera ona izan duela, bai Euskal Herrian eta baita espainiar estatuan ere.

Baina harira: *Sirvase muy*

frio-sirvase muy caliente lanak Txorlitohead eta *Discipulos de Dionisios* taldeen hiruna kanta biltzen ditu alde bakoitzean. Alde bakoitzean diot, ohiko CD formatua alde batera utzi eta 10 hatzbeteko biniloan argitaratu dutelako, 2007ko azarora bukaeran, hain justu.

Txorlitoheadek Tolosako Bonberenean grabatu zituen abestiok 2006ko abenduan, Karlos Osinaga (*Lisabo, Kashbad, Dut, Anari eta Petti...*) teknikariarekin.

Discipulosek, berriz, Estudio 77n grabatu zituen

Jorge Rebooredorekin (*Shock Treatment, NCC, Why not?...*). Rokanrol zikina eta punka, azkar-azkarra, aurkituko ditu entzuleak lan honetan, bi taldeon ibilbidearen ezaugarri. Mamia ona, nere ustean. Eta aurkezpena... sekulakoa. Lehen kolpetik atentzioa ematen du serigrafiatutako biniloak, diseinu aldetik koloretsua eta ezin probokatzaileagoa baita. *Musica Autonoman* edo www.hcpunk.com helbidean eskuratu daiteke, 14 euroren truke.

PATXI URANGA

IKASLEAK IDAZLE



JOSEBA ALONSO |

DBH 4. MAILA

Tren geltokia

Orion jende askok trenea erabiltzen du garraibide bezala. Tren geltokia, ordea, oso leku arriskutsuan aurkitzen da eta jendea errepede erditik kontu handiz, korrika pasatzen da, alde batetik bestera igarotzeko. Autoak ez dira edonola igarotzen, nahiko abiadura handian ibiltzen dira. Gainera, tren geltokia bidegurutze batean dago eta arriskua areagotzen du. Egunen batean, zorigaitzen bat gertatu baino lehen, zebrabidea edo beste pasabideren bat jartzea gomendatzen dut. Ez dakit leku txar batean dagoelako ezin delako jarri edo beste arazoirenen bat badagoen, baina zer edo zer egin beharra dago. Segurtasuna ezer baino garrantzitsuago denez, udaletxekoei edo zuzendu nahiko nieke gutun hau. Gauza txarren bat gertatu baino lehen bidea jarriko duten esperantzaz, mesede handia egingo ligukete askori eta.

LURDES
ARRAZOEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Bol. Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“EAEko herritarren %49ri asko gustatzen zaio musika. Talde edo bakarlari entzunenak La Oreja de Van Gogh, Benito Lertxundi, Kepa Junkera, Joaquín Sabina, Mocedades, Manolo Escobar, Fito y Los Fitipaldís, Oskorri eta U2 dira.”

ERREDAKZIOA

Berria egunkaria
2008/01/04

“Marxismoaz pasoa egiten duten hautesle bakarrak, antza, Euskal Herrikoak. Ez dakit zenbat hauteskunde izan diren Franco hil zenetik, baina egingo nuke ekonomia ez dela kanpaina bakar baten ardatza izan”

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea
Berria egunkaria
2008/01/17

OSPAKIZUNA



20 kiloko itsas aingira

Abenduaren 27an harrapatu zuten Juanjo eta Xabier Murgiondok irudian ageri den itsas aingira (*Conger conger*, Linnaeus). Orioko bokaletik pare bat ordura arrantzatu zuten. Sorpresa galanta hartu zuten biek kainaberari zerk heldu zion ikusi ahal izan zutenean. Arrainarekin borrokan jardun ondoren, gakoarekin altxa behar izan zuten azkenean arrantzontzira. Izan ere, hogei kiloko pisua eta 1,90-2 metro inguruko luzera zuen arraintzarrak.

ZORIONAK!



Poltsaren kanpainari

Ingurumena zaintzeko aholkuak eman eta eman jarduten zaizkigu agintariak, baina gutxitan ausartzen dira benetan eraginkorrek izango diren neurriak hartzera. Horregatik txalotu nahi dugu *Poltsarekin dendaz dena* kanpaina, oso gauza erraza eginez zabor mordoak zakarretatik kentzea lortu delako. Ondo dago hiritarrei kontzientzia hartzen laguntzea. Baina ez da egia dena dagoenik gure esku.

Indarra izango duten neurriak agintariak hartu behar dituzte, enpresa handiak behartuz biltzeko kartoi eta plastiko gutxiago jartzen.

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Alkiorako zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Karroiak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 46 41
e-mail: harraspil@tanaspil.net

OLIDEN
libreria

ORIO

Eusko Gudari, 2
Tfnoa: 943 83 10 86

aroztegia
MIRANDA
Ira M. Latorre

falena, ato, beho, eskalera...
behoz diren azte larak
agilgo diruztegi

Udaretara bidai. 1 +659 42 32 70» ZARAUZ

ile arandegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Kinkladenda- Ume arropa
argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARJEN TXARTELAREKIN

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

OROIMENAREN KUTXA



Nire aipamenak izango dira beste laurogei urtean... zioen Txirritak. Baita Josepa Trekurenak ere, hil eta 88 urtera. KARKARA

Josepa Treku kantaria

Imanol Urkizuk bere abes-
tiekin batera euskal kan-
tutegi zaharretik hartuta-
koak kantatzen ditu jendau-
rreko emanaldietan. Horien
artean daude Josepa Treku
kantatzen zituen kantu alai,
bizi eta pikanteak.

Zein zen, baina, Josepa
Trekua? Ez dakigu gauza han-
dirik haren gainean: Oriota-
rra zen eta bertako kanpo-
santuan dago hilobiratuta;
1920ko otsailaren 6an hil zen,
91 urte zituela. Beste pixka bat
Resurreccion Maria de Azkue-
ri esker dakigu. Eta zein zen,
ba, Azkue hori? Ba, Lekeitio-
ko semea, 1864tik 1951era bizi
izan zen apaiza, Euskaltzain-
diaren lehen euskaltzain
burua, eta mendetako ahoz-
ko euskal tradizioa jasotzen

eta argitaratzen lan erraldoia
egin zuena, jaso ezean betiko
galduko zena. Herriz herri ibi-
li zen Euskal Herrian zehar,
jendearen ahotik bertsoak,
kantuak eta ipuinak jasotzen.
Orion ere izan zen, eta horre-
gatik dakigu Josepa Trekuren
berri. Josepak kantatu zizkion
Azkueri *Galai bat etorri, Alda-
peko Maria* eta beste kantu
batzuk.

Jakin hortaraino dakigu,
hortik aurrera asmatu egingo
dugu harena. Eman dezagun
gizonezkoa izan bazen ber-
tsolaria izango zela eta herri-
ko tabernetan ibiliko zela Gaz-
telu eta garai hartako beste
bertsolariekin. Baina emaku-
mea izanik, eta orduan ate
hori itxita izanda, kantu zalea
zen eta kantuan jarduten zen

orduko labaderoan, gainon-
tzeko emakumeen belarriak
goxatzen, kantuan etxeko
lanetan, kantuan elizan eta
kantuan herriko kaleetan.
Kantua, entzungo bazen,
derrigor kantatu beharra
zegoen gizarte hartan.

Garai hartan ez zen jende
asko iritsiko 91 urte betetze-
ra. Josepari bere alaitasunak
eta horrenbeste kantatzeak
emango zion indarra, horren
luze bizitzeko, ez dago duda-
rik. Baina mundu aldiari bizi
izan zuen bizitza luzeaz gai-
nera, Josepa kantuzalearen
oroimenak hor segituko du
bizirik gure artean haren kan-
tuak abesten ditugun bakoi-
tzean.

IÑAKI ITURAIN

JAIOTAKOAK

- Aitor Alonso Benito, Orion, utarrilaren 12an.
- Jon Eizagirre Atxega, Orion, urtarrilaren 14an.
- Mireia Torres Gutierrez, Orion, urtarrilaren 14an.
- Joseba Torres Gutierrez, Orion, urtarrilaren 14an.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik izan.

HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan.

Eskela edo urteu-
rreneko gogoanga-
rria KARKARAN jarri
nahi baduzu, deitu
gure telefonora:
943 83 15 27



Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Orioko
Ogia

ORIOGI

OPL. OKINDEGIA
Frontal ordoan
Ifnoa: 943 83 01 89

IÑIGO PERONA | TRONPETARIA

“Tronpeta jotzen hastearekin batera uzten dut lotsa etxean”

Urterak daramatza Iñigo Peronak tronpetari putz eta putz. Familia musikarikoa, kalez kale aritu eta giroa alaitzeko grina eta afizioa bere egin ditu.

Aita, aitona, osaba musikariak. Seaskan txupetearen ordezkari tronpeta ematen al zizuten?

Aitona, osaba eta aita beti ibili izan dira txaranga eta musika munduan, eta etxean nabaria izan da hori beti. Esaterako, txikitik musika eskolara joan behar izaten nuen. Lagun guztiak judo edo horrelakoetan zebiltzan, eta nik ere hala nahi nuen, baina tronpetara apuntatzen ninduten.

Beti ikusi izan ditut musika-tresnak etxean eta askotan ibiltzen nituen eskuetan. Zer ote ziren galdetzen nion neure buruari eta haiekin esperimentatzen, jolasten ibiltzen nintzen. Azkenean, gustatu.

Beste instrumenturik jotzen al duzu?

Aitonak nik bonbardinoa ikastea nahi zuen, eta hala egin nuen, baina ez zait gustatzen. Hortxe jarraitzen du etxean, egonean. Nahiago dut tronpeta. Hala ere, atara izan du naiz aliron batean edo bestean bonbardinoa joaz.

Rockatik salsaraino, denetarik jotzen omen duzu. Zer-erresortzen al duzu musika?

Besteek konposatutako doinuak jotzen ditut, ez bai-naiz ni neroni musika sortzera ausartzen. Gainera, ez naiz belarri oso onekoa, baina entzunaren entzunaz, jo nahi dudana musikaren melodia zein notek osatzen duten ateratzen dut.

Jendeak kanta ezagunak jotzeko eskatzen dit sarritan



Tronpeta jotzeko zaletasuna etxetik datorkio Iñigori.

KARKARA

Beti ikusi izan dut tronpeta etxean eta askotan ibiltzen nuen eskuetan. Azkenean, gustatu

eta ni musikari itxura ematen saiatzen naiz. Hala ere ez naiz oso jakituna eta ez ditut eskatutako doinu asko ezagutzen.

Inoiz pentsatu al duzu talderen bat sortzea?

Bai, burutik pasa izandu zait. Talderen bat sortzeko

Bakarrik ez nintzateke kalera tronpetarekin aterako, eskerrak alboan lagunen bat edo beste izaten dudana beti

gogoia eta asmoa badauzkat, baina asmo hutsean geratu da oraingo. Ska estiloko musika joko nuke: tronpeta, saxofoia, tronboia, bajuren bat eta bi gitar... Talde handia behar luke izan, dudarik ez dago.

Herriko txarangaren errele-

borik ba al dator?

Aitonak ez bezala, alironen zain izaten da-eta, gazteok gure planak egiten ditugu eta ez gara arraunlarien emaitzen zain egoten. Izan ere, beste konpromiso batzuk ere izaten ditugu. Ni, adibidez, Zumaiako *Zuma* eta Hernaniko *Urumea* txarangaren eta Getariako musika bandaren kide naiz. Gainera, Eibarko *Ustekabe* eta Durangoko *Sugarri* txarangetatik ere sarri deitzen didate. Eta egun bateko saioetan ere izaten naiz tardeka-tarteka: Donostiako danborradan, inauteriak Tolosan...

Kontxa egunean ere kontzertua eman zenuen arranzplan. Zenbat tokitan entzun da zure tronpetaren hotsa?

Entzulea animatuta dagoen lekuan giro ona jartzea ez da zaila. Kontxan jendea gustura zegoen eta ez zuten ezer askorik behar lehertzeko. Urtero eramaten dut tronpeta estropada egunera, festara. Hala ere, ni bakarrik ez nintzateke joango, eskerrak alboan lagunen bat edo beste izaten dudana beti, bonboia joaz.

Beste egun edo jai jakin batzuetan ere beti izaten naiz, Donostiako danborradan, esaterako, aurten gutxi entsaiatu dugun arren. Horrez gain Gabonetako kale eskean, Arrasaten... izan gara musika tresna eta biok.

Egia esan, tronpetarekin lotsa galdu egiten dut. Momentuan kostatzen egiten zait hastea, baina lehenengo pieza jotzen dudana unetik aurrera, etxean uzten ditut lotsaren kontu horiek. Hurrengo egunean irudia begiratu eta aurreko eguneko gogoratzean, hala esaten diote neure buruari: *hori hik egin al dek?*

ESKUBALOA

■ Urtarrilaren 27an, infantilean: Legazpi-Xurumuru.

ARETO FUTBOLA

■ Urtarrilaren 26an, 1. nazional kategorian: Orioko Tabernak-Ceramicas Nogales. 2. kategorian: Plaza Berri Sport-Orioko Tabernak.
■ Otsailaren 2an, 1. nazional kategorian: UZ S Coop-Orioko Tabernak. 2. kategorian: Orioko Tabernak-UPV Inter.

FUTBOLA

■ Urtarrilaren 26an, regionalean: Orio-Lazkao. Jubenilean, Kopa eta jaitsiera: Orio-Elgoibar. Kadetean, Kopa: San Patricio-Orio. Infantilean, igoera: Elgoibar-Orio. Emakumezkoetan, Kopan: Urnieta-Orio. Kadete neskek, txapeldunen fasean: Ostadar-Orio.

PLAIEROAK

■ Urtarrilaren 27an, Aranola-Xixario. Zarauzko hondartzan, 12:30ean.

ARRAUNA

■ Otsailaren 2an, Gipuzkoako ligako aulki mugikorrek jaitsiera Hondarribian. 10:30ean hasiko da.



Zaragueta eskola

Zaragueta eskolak egun duen eraikuntzaren 25. urteurrena ospatuko du aurten. Besteak beste, argazki erakusketa bat antolatzekotan dira udaberri aldera, kultur etxean. Hori dela eta, bertatik pasatako ikasle eta irakasle ohie dei egin diete etxean dituzten argazkiak eskolara eramateko edo posta elektronikoz bidaltzeko. E-maila: zaraguetaeskola@gmail.com. Telefonoa 943 89 40 52

KZ GUNEA

■ Ordutegia aldatu du KZ gunek. Hemendik aurrera egunero irekiko da goiz eta arratsaldez.

BINGOA

■ Urtarrilaren 30ean Zaharren Babes Lekuak antolatuta, bingo saioa izango da kultur etxeko

areto nagusian. 16:30etik 18:00etara.

■ Otsailaren 6an Zaharren Babes Lekuak antolatuta, bingo saioa. 16:30etik 18:00etara.

SOFBOLA

■ Urtarrilaren 26 eta 27an Areto Sofbol Liga, kadete emakumezkoak: Gika OBB-

Amara. Karela kiroldegian.
■ Otsailaren 9 eta 10ean Areto Sofbol Liga, kadete emakumezkoak: Krafft Atco SS-Gika OBB.

ZINE FORUMA

■ Urtarrilaren 25ean, OZK taldeak antolatuta, The Host. 22:00etan kultur etxean.
■ Otsailaren 8an, OZK taldeak antolatuta, Nadie Sabe. 22:00etan kultur etxean.

KONTZENTRAZIOA

■ Urtarrilaren 25ean, euskal preso politikoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila. 20:00etan plazan.

SILO-BOLAK

■ Otsailaren 12an egingo dira silo-bolak. Zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 943 81 65 00; edo bertako arduradunarekin hitz egin: Igor, 660 04 97 51.

HONDAKINAK

■ Otsailaren 7an jasoko dituzte Orion olio eta bestelako hondakin arriskutsuak.
■ Aian, berriz, Lardizabaleko aparkalekuan dauden edukiontzi berezietan utzi behar da olio zaharra.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa

Zerbait saldu edo erosi, oparitu, lan eskaintzak, etxea alokatu... nahi baduzu, KARKARAN duzu iragarkietarako txoko berri hau.

Iragarri nahi duzuna telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu:

karkara@karkara.com
Eta merke asko, doako zerbitzua baita gurea.

SALGAI

■ Dragon Invacare markako gurpildun aulki elektrikoa eta ranpak salgai. Berri-berria dago dena. Prezioa: 3.000 euro. Tel: 943 83 27 63.
■ Berri-berri dagoen gasoil depositoa salgai bere motor eta guzti. 500 litro hartzen du. Tel: 677 84 33 23.
■ Aiako intxaurrak salgai, 5 kilo 15 eurotan. Tel: 943 13 21 31.

LAN ESKAERAK

■ Igeltseritza lanak egiteko prest nago. Jabi (651 70 89 60).

GALDUTAKOAK

■ Urrezko pultsera galdu zitzaigun urtarrilaren 19ko asteburuan, Orion. Urre txuri eta hori kolorekoa da. Inork aurkitu badu, arren, jar dadila harremanetan nirekin: 943 83 39 20 (Idoia). Izugarri eskertuko diot, estimu handian baitut pultsera.

MINTZAPRAKTIKA

■ Frantsesa ikasten ari naiz eta mintzapraktika egin nahi nuke. Animatzen bazara, deitu 697 786 482 zenbakira eta Marijoren galdera egin.

LAN ESKAINTZAK

■ Tabernariak, sukaldariak, peoiak, ofizialak, irakasleak, ingeniariak, musikariak, titiriteroak, saregileak...
Denetariko irakurleak ditu KARKARAK. Agian, hemen topatuko duzu lanerako bila zabilzan pertsona hori.

ALOKAIRUA

■ Hauxe izan daiteke bila zabilzan pisua topatuko duzun txokoa.

SALEROSKETAK

■ Batek daki ez ote duzun hemen salduko garajea hainbesteko traba egiten dizun motorra.

